

Euskalduntzeko era berriak. Kuadrillategiren esperientzia

(New Basquisition Methods. The “Kuadrillategi”
experience)

Iztueta Armendariz, Paulo
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48.
20007 Donostia

BIBLID [1137-4446 (2008), 16; 65-79]

Jaso: 07.07.20
Onartu: 07.12.03

Lan honetan “Kuadrillategi” elkarteko ikertzaile-taldearen hamabi urteko esperientziaren bilakera azaltzen da. Euskararen ezagutza eta haren erabilera bermatzeko, berezko taldeetan oinarritzen den talde profesional baten emaitza da hau, Hego Euskal Herri osoan zehar zabaldua dagoena. Guztira 285eko gazte-taldea zegoen murgilduta 2006ko ikasturtean. Euskalduntzeko era berri baten aurrean aurkitzen garela esan daiteke. Azken partean, Fishmanen ikuspegiak ohar kritiko batzuk egiten dira.

Giltza-Hitzak: Taldeen Euskalduntzea. Gizabanakoen Euskalduntzea. Euskararen ezagutza. Euskararen erabilera. Hizkuntza komunitatea. Euskalduntzea. Berreuskalduntzea.

En el presente trabajo se expone la evolución de una experiencia de doce años del grupo de investigadores de la sociedad “Kuadrillategi”. Es éste el resultado del trabajo de un equipo de profesionales basado en grupos propios que tiene por objeto el conocimiento del euskara y el afianzamiento de su utilización. Diseminados por todo Hegoalde, un total de 285 grupos de jóvenes se encontraban inmersos en esta tarea durante el curso correspondiente al año 2006. Se puede afirmar que nos encontramos ante una nueva forma de aprendizaje del euskara. En la última parte, se recogen algunas notas críticas sobre la perspectiva de Fishman.

Palabras Clave: Euskaldunización de los Grupos. Euskaldunización del Individuo. Conocimiento del euskera. Uso del euskera. Comunidad lingüística. Euskaldunización. Reeskaldunización.

Le présent travail présente l'évolution de l'expérience, qui s'est prolongée durant douze ans, du groupe de chercheurs de la société “Kuadrillategi”. Il est le fruit des études menées par une équipe de professionnels avec divers groupes, dont l'objectif est la reconnaissance de l'euskara et le renforcement de son usage. Disséminés à travers Hegoalde (Pays Basque Sud), 285 groupes de jeunes ont participé à cette initiative durant l'année scolaire 2006. Il s'agit, en quelque sorte, d'une nouvelle forme d'apprentissage de l'euskara. La dernière partie offre quelques notes critiques selon la perspective de Fishman.

Mots Clé : Euskaldunisation des Groupes. Euskaldunisation de l'Individu. Connaissance de l'euskara. Usage de l'euskara. Communauté linguistique. Euskaldunisation. Réuskaldunisation.

Euskararen historia soziala gainetik ezagutzea aski da konturatzeko euskaldunak alfabetatzeko eta erdaldunak euskalduntzeko ahaleginak aspalditik datozkigunak direla eta aldi bakoitzak, garaian garaiko egoera eta ikuspegien arabera, bere era bereziak erabili izan dituela helburu horiek lortzeko bidean, Lazagarraren garaitik hasi eta egun arte. Leizagarraren obren azken xedea, esplizituki aitortua, erlijiosoa bada ere, inplizituki alfabetatzearena ere bada, kristauak erreformara erakartzeko bide bezala testu idatzira jotzen baita, zuzenean irakurria izan dadin gutxi-asko alfabetatuen kasuan, edota, alfabetatu gabeen kasuan bezala, batek ozenki irakurria taldekoek mezua entzunez jaso dezaten. Hau izan da mende luzetan zehar euskararen gizarte-erabilera bermatu duen alfabetizazio-erarik hedatuena, dotrinen bidez jasotakoa, hain zuzen, idatzizko zein ahozko tradizioan, batez ere azkenekoan, irakurketa banaka batzuen kontua baizik ez zen garaian.

Lore Jokoen garaian, XIX. mendearen erditik aurrera, Ana Eizagjrek bere doktore-tesian ederki asko aztertzen duen bezala, euskaldunak alfabetatzeko, euskararen mundura erakartzeko, beste era berri batzuk asmatzen dira, hala nola, literatur lehiaketak, euskal jaiak, herri-kirolak, bertsolariak, eta modu esplizitu batez, jende xehea euskaraz irakurtzera eragiteko, almanaka, egutegi eta aldizkari egokiak. Alfabetatzearen azken xedea lehengo berbera izanik ere –euskararen normalizazioa lortzearena, alegia–, bitartekoen esparrua asko zabaltzean da garai bateko dotrinen euskarri nagusitik harago.

Euskararen gainbehera hasten denean eta Eusko Pizkundeak erdaldundutako ohiko lurraldeak eta gizarte-esparruak berreuskalduntzeari ekiten dionean, alfabetatzearen zein euskalduntzearen eginkizunak bideratzeko elkarte eta kultur plataforma bereziak sortzen dira, hala nola Eusko Ikaskuntza –eta honi atxikirik Euskaltzaindia, Euskaltzaleak, eta abar–, ikastolak, euskarazko aldizkariak, horietako gehienak herri-mugimenduetan oinarrituta daudenak.

Gerra osteko lehen hamarkadetan, euskalduntzea euskal akademietan ematen da, adibidez, Bilbon Xabier Peñaren inguruan, talde txikitik. Alfabetatzearen kanpaina, oraingoan zentzu hertsian hartuta, geroago hasten da, 1960ko hamarkada-bukaeran, Rikardo Arregik eta beste batzuek antolatuta Euskaltzaindiaren inguruan, eta harrezkero alfabetatzea eta euskalduntzea, biak batera etorriko dira AEKren tradizio osoan zehar.

Alfabetatzearen zein euskalduntzearen historia labur hau egin badut, gauza bat nabarmentzearren egin dut, eta da bi kultur praxi horien azken xedea euskararen normalizazioa dela eta hori lortzeko garai bakoitzean bide bereziak erabili izan direla, nik hemen “erak” deitzen ditudanak. Detxeparek bere poema batean euskarak bere “tornua” izan zezan idazten zuela aitortzen zuenean, egun normalizazioaren kontzeptuarekin ulertzen dugunaren antzeko zerbait adierazten zuen. Euskarari garai hartako letren munduan zegokion gizarte-ohorea desiratzen zion, bere leku landu eta ilustratua, bere alboko hizkuntzen parekoa.

Azkenaldion intziri baten antzera entzuten gatoz euskalduntzearen prozesua moteltzen ari dela eta, EAEko datu estatistikoak eskuan, esan dezakegu egiazko krisialdi sakonean sartuta gaudela, 1995-1996 ikasturtean 44.855 ikasle izate-

tik 2001-2002 ikasturtean 33.993 izatera iritsi baitzen, sei urtean 10.862 ikasle galduz. Portzentaieetan % 15,24ko galera. Kezkatzen hasteko modukoa, zalan-tzarik gabe. Datu hori bezain edo are kezagarriago da euskara ezagutzen dutenen erdiek ere ez dutela erabiltzen beren eguneroko bizitzan.

Ez noa oinarritzko datu horren zergatia azaltzera, gai honi, besteak beste, *Jakin* aldizkariak (137, 2003) ale monografiko bat eskainia baitio, lehenago ere bai beste bat (59, 1990). Azaldutako euskalduntzearen inguruko krisi-egoera hau aurrean dugula, nire asmoa da galdetzea ea zerbait berri proposatu den beherakada honi aurre egin eta gorabidean jarraitzeko, zehazki, kasu honetan, euskararen erabileraren esparruan. Izan ere, mintzatzen ez den hizkuntzak etorkizunik ez du.

1. KUADRILLATEGIREN EGITASMOA

Nire jarduna, beraz, Kuadrillategi elkartekoen talde-lana azaltzera mugatuko da, hauen historia ez baita agertzen euskalduntzeari eskaintzen zaizkion ikerketa-lanetan. Agian, izena bera ezezaguna egingo baitzaio bakarren bati, hortik hasiko naiz. Kuadrillategi euskalduntzeaz arduratzen den ikerketa- eta aholkularitza-talde batek osatzen duen proiektu edo egitasmo bat ba, AEKren tradizioetik datorrena, baina maila teoriko zein metodologikoan berrikuntza bat dakarrena edo, bederen, asmo horrekin bideratu izan dena. Bere hamabi urteko ibilaldia egin eta gero, esan ote dezakegu euskalduntzearen egiazko era berri baten aurrean aurkitzen garela? Beste euskaltegi-motekin konparatuta, zein neurritan ote da berritzailea? Zein neurritan hausten ote du aurreko ereduarekin?

Nire asmoa, xumea da: lehenik, egitasmo hau zergatik iruditzen zaidan berritzailea arrazonatzen saiatuko naiz; bigarrenik, zer-nolako emaitzak eman dituen; azkenik, gogoeta batzuk egingo ditut eredu berri honen gainean, balorazio gisako zerbait eskainiz.

2. BERRIKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Egia da, modu esplizituan ez bada ere, inplizituan beti egon ohi dela kultur praxi jakin baten norabidea markatzen duen hari gidari bat, xedeak bitartekoekin lotzen dituen eredu teoriko bat, jokabide arrazoitu bat. Ohitura akademikoa da ikerketa-lanetan alderdi teorikoari zein metodologikoari beren garrantzia ematea, eraiki nahi den diskurtsoak oinarri sendoak izan ditzan.

Soziolinguistika eta Hizkuntzaren Soziologiako ekarpenak euskalgintzan eta, zehazki, euskalduntzeko plangintzan zabaldu eta aplikatzen hasten direnean, indarrean dauden ereduak eguneroko errealitatean gertatzen diren datuekin kontrastatzean eta, bide batez, iturri desberdinetatik jasotako ezagutzak pilatzean, norberaren izpiritu kritikoa zorrotzu egiten da eta errealitateari hurbilago eta lotuago zaion beste eredu berri baten bila hasten zara, edo bederen kezka hor daukazu. Iruditzen zait horrelako zerbait gertatu zitzaiola Pello Jauregi Etxaniz gazteari, bere doktore-tesia zuzendu niezaion galdezka etorri zitzaidanean.

Berehala eman nion baiezkhoa, buruan ondo josita baitzekarren zer landu nahi zuen, zein ikuspegiarekin, eta nola antolatuta. Bere ikerketa eguneroko praxiari lotua nahi zuen, behaketa etnografikoan oinarritua. Emaitzak *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia* izenarekin eman zituen argitara EHUko argitalpen-zerbitzuan 1998an, tesia bukatu eta handik lau urtera. Oso hurbiletik segitu bainituen ikertzailearen urratsak, orduan ere sendoak eta interesgarriak iruditzen zitzaizkidan bertan irekitzen zituen ildoak, baina ez nuen uste izan orduan eraikitako diskurtso teoriko hura eta hartan oinarriturik egindako landa-lana hain emankorrak gertatuko zirenik.

Pello Jauregik, bere ikerketari ekitean, euskaldun berria izateak eta EAEko irakasle-lanetan jarduteak ematen dioten esperientzia dakar batetik, eta bestetik, berriz, konstatazio soil bezain krudela: euskara ez dela erabiltzen hurrik eman ere ezagutzen den neurri berean. Zergatik hori?

Haren hipotesia da, datu enpirikoen bidez frogatzen saiatuko dena, okerra erdaldunak euskalduntzen erabilitako estrategian aurkitzen dela, planteamendu indibidualista kolektiboari nagusitu izan zaiolako eta, oraindik ere, jarrera horri eusten zaiolako. Izan ere, egileak sarreran egoki asko azaltzen duen bezala, estatuek beren hizkuntza nazionaleri eskubide kolektiboak onartzen dizkie eta lurralde osoan zehar bertako hiritarrek hizkuntza horiek ezagutzera behartuak daude. Hala gertatzen da gaztelaniarekin eta frantsesarekin. Euskarari, aldiz, eskubide indibiduala soilik onartzen zaio. Frantsesak eta gaztelaniak beren hizkuntza-mekanismoak erabaki kolektiboan oinarrituta dauzkate eta euskarak, aldiz, norberaren erabakian. Horretan datza alde erabakigarria, bere jatorria estatu-botereen hizkuntza-politikan duena.

Zer gertatzen den Euskal Herrian abian jarri den hizkuntza-politikarekin? Erdaldunak euskalduntzeko zein euskaldunak alfabetatzeko egin diren planteamenduetan ere, nola administrazio-mota desberdinetan hala euskara irakasteko gune espezifikotan –hemen sartuz euskaltegiak, adibidez–, irizpide indibidualista finkatu dela eta euskararena, azken batean, norberari bakarrik dagokion hautaketa-arazo bat besterik ez dela. Ondorio honetara iristen da Euskal Herrian indarrean dauden teoria soziolinguistiko eta soziologikoak ikuspegi kritikoz aztertu eta gero.

2.1. Ikuspegi indibidualisten jorraketa

Kuadrillategiren ekarpena zertan datzan jakiteko, ezinbestekoa da orokorrean euskalgintzan eta zehazki euskalduntzearen esparruan zein irizpide eta jokabide aplikatu diren aipatzea.

2.1.1. Ezaguna denez, Sánchez Carrión “Txepetxen” hizkuntzen ikaskuntzari buruzko teoriak eragin handia izan du euskalgintzaren esparruan eta oraindik ere izaten jarraitzen du. Hizkuntza ikasteko bi bide bereizten ditu: bata kulturala, hizkuntzen irakaskuntza horretarako sortutako gune formaletan modu sistematiko batez antolatzen dena, sare pribatuko zein publikoetako euskaltegi-mota guztietan ohi den bezala; bestea, berezkhoa edo naturala, gune ez-formaletan bideratzen

dena, lagunartean, koadriletan, etab. Bi ikasbide horiek bateratuz lortzen da “hiz-tun osoen multzoa”, berak hizkuntza-komunitatearen ardatz bezala daukana, “hizkuntzaren gune sinbolikoa” deitzen diona. Erdigune hori zabaldu, indartu eta trinkotzen joan ahala doaz antolatzen gainerako talde soziolinguistikoak haren inguruan zirkulu kontzentrikoa eratuz eta hauetan modu jerarkikoan honelako taldeak sailkatuz: AB (sortezko euskaldun eskolatuak); BA (hizkuntza errotua duten euskaldun berriak); A (sortezko euskaldunak eskolatu gabek); B (hizkuntza errotu gabeko euskaldun berriak) eta O (erdaldunak). Teoria honetan, bada, erdigunetik kanpora hazten da hizkuntza-komunitatea (Jauregi, 1998, 69-75).

Pello Jauregik ikuspegi honi egiten dion kritika da, hizkuntza-taldeak horrela sailkatzerakoan, Txepetxek taldearen kategoria linguistikoa soilki erabiltzen duela; Jauregik, aldiz, kategoria soziolinguistikoa ematen dio lehentasuna, gizarte-ko bizitzan, taldeak osatzeko orduan, berezko taldeetan bezala, hizkuntzarekin batera, beste faktore batzuek ere –afektiboek adibidez–, garrantzi handia baitute eta horiek kontuan hartu beharrekoak baitira: “Berezko taldeak osatzeko pertsona osoarekiko enpatia hartzen da kontuan eta ez hizkuntza-gaitasuna soilik” (Jauregi, 1998, 76). Berezko taldeetan, beraz, mota desberdinetako hiztunak aurki daitezke: 1) jatorrizko euskaldunak eta erdaldunak; 2) jatorrizko euskaldunak eta jatorrizko euskaldun eskolatuak; 3) euskaldun berriak eta erdaldunak. Berezko taldeen ohiko egoera hizkuntza-tipologiaren nahasketa da, ez Txepetxeren erudian hizkuntza-gaitasunaren arabera antolatutako tipologia jerarkikoa.

Eta bigarren ohar kritikoa da, Txepetxeren teoria gizabanakoen erabaki eta ahaleginean oinarritzen dela, zeinaren arabera, abiapuntua ikaslearen motibazioan ezartzen baita, eta hortik eratorriko bailirateke berez bere ezagutza eta erabilerera. Sakabanatutako euskaltzaleak bildu eta hizkuntza-erabileraren inguruan gune bereziak sortzea aspaldiko joera izan da euskalgintzan eta Txepetxeren teoriak ere joera hori sendotzea ekarri du. Ikuspegi horrekin sortuak izan dira, erakunde publikoen babesean, euskara sustatzeko guneak, beren aditu eta ardurdunekin, udaletan eta, eta egun hortik sustatzen dira hainbat ekimen, hala nola lekuko aldizkariak eta egunkari-orriak, telebista-emanaldiak, eta beste.

Ikuspegi hau, ordea, okerra iruditzen zaio arrazoi hauengatik: lehenik, motibazioak ez dakarrelako berez eta nahitaez hizkuntza buruz eta arrazoituz ikasi beharra, bigarrenik, hizkuntza erabiltzeko gaitasuna hura ezagutze hutsetik etortzen den ondorio bat ez delako, eta hirugarrenik, horrela sortutako gune berezietan “ghetoak” izateari ezin utzi diotelako. Bestela esanda, erdaldunak euskalduntzeko bide bakarra ez da gramatikarena; alderantziz, ikasteko prozesua hizkuntzaren erabileran bertan oinarritu ezinik ez legoke. Hizkuntza erabiltzen den testuinguru jakin batean murgilduz eskura dezake ikasle helduak hitz egiteko gaitasuna (Jauregi, 1998, 69-73).

2.1.2. Atzerriko adituen artean, agian J. A. Fishman izan da EAEko politikaren antolaketan eraginik gehien izan duena. Autore honek hizkuntzaren planteamendua ikuspegi soziologikotik egiten du, euskalduntzearen prozesua funtsean gizarte-erakundeetan oinarrituz eta horietan, aldi berean, lehentasunak ondoko zortzi urrats hauen arabera sailkatuz: 1) administrazioaren eta goi-mailako irakas-kuntzaren euskalduntzea; 2) zerbitzu publiko eta komunikabideen euskaldun-

tzea; 3) lan-munduaren euskalduntzea; 4) irakaskuntzaren euskalduntzea; 5) hizkuntza-erregistro formalen sozializazioa berezko giroetan eta landuetan; 6) hizkuntzaren erabilera familia, auzo eta hurbileko komunitate txikietan ziurtatzea; 7) hizkuntza ongi ezagutzen duten hiztun zahar eta helduen eskuartze aktiboa erdaldunen euskalduntzean; 8) hizkuntzaren corpusari buruzko oinarrizko adostasuna. Haren plangintzaren erdiko gunea osatzen duena, hain zuzen, euskararen erabilera familian eta honen ingurumarian –hau da, eguneroko bizitza errealean–, ziurtatzea da eta hori ez bada hala gertatzen, beste gunea formaletan egindako ahaleginak hutsalak gertatuko dira.

Planteamendu honetan onargarriak iruditzen zaizkio hainbat puntu, zehazki ondoko hiru hauek: bat, berezko taldeen funtsezkotasuna; bi, hizkuntzaren erabilera taldeekin duen zerikusia; hiru, haurrek eta helduek osatzen duten sistema banaezina. Taldeak esatean, berak familia aipatzen du, baina kontzeptu hori areago zabal daiteke, hor sartuz auzoak, lagunarteak, elkarteak, etab. Bestalde, euskararen transmisioa egin ahal izateko, ezinbestekoa da helduen haurrenganako eragina.

Pello Jauregik ez du zehazten Fishmanen teoria honek zer duen eskas, ez bederen Txepetxenarekin egiten duen bezala. Honen hizkuntza-politikari buruzko teoriak ere, gure ustez, zulo nabariak izan ditu. Hizkuntzaren corpusari dagokionez, hori bai, esan dezakegu urrats hau bideratu eta sendotuzat eman daitekeela euskararen batasunaren inguruan egin den ahaleginarekin. Hezkuntzaren Sailean eman diren urrats handiak aipatu eta nabarmendu izan dira, batez ere Administrazioetik, baina hor ere defizitaren handia ukazina da irakaskuntza ez-unibertsitarioan eta oraindik handiagoa unibertsitate-munduan. Administrazioan eta lan-munduan euskarak ezer gutxi egin du aurrera. Gizarte-bizitzan, eguneroko harremanetan, euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko tartea handitu egin da.

2.1.3. Ekintzen bidezko ikaskuntza izan da, bestalde, AEKk 1985. urteaz geroztik bere lanerako erabili izan duen azterbidea. Planteamendu honetan, kultur ekintzen bidez, didaktika-jarduera eta gizarte-jarduera uztartu nahi dira eta, bide-nabar, euskararen erabilera suspertu eta euskara ikasteko motibazioa piztu. Baina lortu nahi den helburua bideragarri izan dadin, bi baldintza bete behar dira ikasleen aldetik: bat, guztien interesguneak bat etortzea kultur ekintza jakin baten inguruan, eta bi, ikasbidea egokitzat jotzea. Honek esan nahi du, ikasleek, euskara ikasteaz gain, beste interes batzuk ere izan behar dituztela batera, hala nola, musika, zinea, ekologia, edo beste edozein, azken helburua eskuragarriago bilaka dadin.

Teoria honen aplikazioak AEKren baitan eskas duen alderdia, beste euskaltegi-mota guztietan bezala, norabide indibidualistan oinarritutako pedagogia erabiltzean datza. Hauxe du mugarik handien, segidan azalduko denez.

2.2. Berezko taldeak: kolektibitatearen lehentasuna

Arestian aipatutako hiru teoria horiek izan dira azkenaldion euskalgintzaren esparruan aplikatu izan direnak eta Pello Jauregik aurrean izan dituenak bere ikerketari ekiteko orduan. Teoria horiek ez zaizkio iruditzen bere osotasunean ez

gaitzestekoak ez onartzekoak, baina bai, galbahe kritikotik pasatu ondoren, hainbat puntutan kontuan hartzekoak.

Bakoitzetik beretzen du zerbait. Txepetxi zor dio euskalduntzearen prozesuan erdigune gisa hiztun osoen multzoa ezarri izana, Fishmani berezko taldeei –kasu honetan familia, auzo eta komunitate txikiei–, hizkuntzaren erabileran ematen dien funtsezko garrantzia, Ekintzen bidezko ikaskuntzari irakaskuntzaren prozesua bera ekintza jakinetan finkatzea. Funtsezko elementu hauek guztiak bateratuko ditu berezko taldeei buruzko diskurtsoan.

Zer duten eskas? Labur esanda, ez dutela ziurtatzen hizkuntzaren erabilera. Edozein hizkuntza-politika bideratzen dela ere, baldin eta hizkuntzaren ezagutzarekin batera haren erabilera ziurtatzen ez bada, pentsa daiteke eredu hark huts egin duela. Zergatik? Pello Jauregiren ustez –eta maila honetan batera ekartzen ditu Txepetxen zein Fishmanen teoriak–, hauen teoriak planteamendu indibidualista batean oinarritzen direlako.

Beraz, erabileraren arazoari aurre egingo bazaio, nagusitzen den jarrera indibidualista gainditu beharra dago. Eta jarrera indibidualistaren eta kolektiboaren arteko aldea egiazki handia da, emaitzen nolakoa errotik baldintzatzen duen horietakoa. Planteamendu indibidualistan, ikaskuntzaren norabidea gizabanakotik gizartera doana da eta, ikas-prozesuari dagokionez, ezagutzatik erabilera doana, pentsatuz euskaltegira doazen erdaldunak euskalduntzea lortzen badu, gero gizartean euskaraz bizitzen segituko duela. Ezagutzak besterik gabe erabilera dakarrela suposatzen da. Urtean zenbat euskaldun berri ateratzen diren zenbaitzeari ematen zaio garrantzia. Hizkuntzaren irakaskuntzan ikuspegi kolektiboa daukanarentzat, aldiz, norabidea markatzen duena ez da gizabanakoa, taldea baizik, eta euskararen erabilera bermatuko duena ez da ezagutza bera, alderantziz baizik, hau da, taldean erabiliz joango da ikasten. Normalizazio-prozesuak berak euskaldunduko ditu gizabanakoak. Bestalde, inguruneari dagokionez, euskalduntzeko ez da ezinbestekoa giro bereziak sortzea, gune formaletan ohi den bezala, ohiko giroak ere hain emankorrak izan daiteke helburu horretarako.

Abiapuntuan bakarrik datoz jarrera biak bat, erabaki pertsonalean oinarritzean, hain zuzen. Berezko taldeen ideia hau Pello Jauregik S. D. Krashen egileari hartzen dio, honek defendatzen baitu helduek ere haurren gisara ikas dezaketela bigarren hizkuntza dakitenei taldean entzunez. Berezko taldeak euskaldundu ahal izateko, ordea, baldintza objektibo batzuk bete behar dira, besteak beste, hauek bederen bai (Jauregi, 1998, 14-16):

a) Taldekide erdal elebakarrak izatea eta hauekin batera oinarritzko hizkuntza-gaitasuna duten taldekide euskaldunak izatea. Honela osatutako taldean zenbat eta euskaldun gehiago izan eta hauen gaitasuna zenbat eta handiagoa, orduan eta errazago lortuko da hizkuntza-azturak aldatzea. Taldekide euskaldunak behar du izan talde osoaren bihotz.

b) Bestalde, jakinda taldeen azturak gizar-te-egituretan instituzionalizatuta daudela eta taldea mugitzen deneko gizar-te-giroa erdaldundua dagoela, guztiz garrantzizkoa da, taldearen egituren taldekide bakoitzak betetzen duen zeregina-

ri dagokionez, gidaritza taldekide euskaldunek ematea. Hemen ere, euskaldunen gunea zenbat eta sendoagoa izan, orduan eta aukera hobek sortuko dira taldearen euskalduntze-prozesuak aurrera egin dezan.

Baldintza objektiboez gain, subjektibo hauek ere aintzat hartu beharrekoak dira, hala nola: taldeko hiztunak jarrera berria, desiragarritzat ez ezik, egingarri eta erabilgarritzat hartzea, eta lorpen horrek neurriko ahalegina eskatzen diola konturatu eta onartzea. Beraz, bi baldintza-mota horiek, nola objektiboak hala subjektiboak, bat egin eta gero, erdaldunak berezko taldetan euskalduntzeko bidean gaudela pentsatzeko moduan egon gaitezke. Pello Jauregik honela laburbiltzen du bere ikuspegia:

Euskararen ikas estrategia gizarte normalizazio estrategia bihurtu nahi dugunean berezko taldeen euskalduntzea bide aproposa agertzen zaigu. Harremanetarako da eta harremanetan bizi da hizkuntza. Berezko taldeena da gizabanakoaren harreman eremurik gertuen eta iraunkorrena (...) Giroa aldatzea harremanak euskalduntzearen sinonimotzat hartzen dugu eta harremanak euskalduntzea euskara erabiliz erdiesten dela uste dugu. Motibazioaren aldetik, euskaraz bizi nahi izatea (erabilera alegia) da motibazio bultzatzailea. Hizkuntza-gaitasunaren aldetik, erabilera dugu hizkuntza-gaitasunaren sortzailea, inputaren bidez bereziki. Ohituen aldetik, hizkuntza bera erabiliz egiten da ohitura berriak sortzeko urrats-urratseko ibilbidea (Jauregi, 1998, 89).

Beraz, euskalgintzan normalizazio-prozesuari eragin eta mekanismo kolektiboaren dinamika ezartzen joan ahal izateko, gizartearen makroegituretan sartu gabe, berezko taldeak –kasu honetan lagunarteak– aztertzea eta horiekin lan egitera mugatuko da Pello Jauregiren landa-ikerketak eta geroago, horretan oinarriturik eta haren segida gisa, Kuadrillategiren proiektua. Non? Zein giotan? Kanean, erdal giroa nagusi den lekuan. Eta nola euskaraz ikasi eta bizitzeko gune babestuak behar diren, gizarte-gune berezi hori koadrilan ematen da.

Hara hor azalduta zertan datzan berrikuntza, kalea bera euskaltegi bihurtzean, hain zuzen. Horrela jokatzean, euskalduntzearen prozesua ghetotik ateratzeko urrats bat gehiago eman ahal izango da.

2.3. Berrikuntza metodologian

Hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko abiapuntutzat berezko taldeak hartuz gero, hurrengo galdera da ea nola lortzen den hori. Ez noski ohikoak diren gune formaletan, euskaltegietan, barnetegietan, akademietan, edo erakunde publikoek horretarako sortutako zerbitzuetan. Izaera honetakoak lirateke euskalduntzeaz arduratzen diren erakunde-mota guztiak, hala nola, AEK, IKA, Bertan, Udal euskaltegiak, Federatu gabeak, Barnetegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, IRALE eta horien gisakoak. Hauek guztiek, lehen esan bezala, ikuspuntu individualista baitute, gizabanakoak euskalduntzeari ematen diote lehentasuna, eta hor giro babestuari dagokion metodologia aplikatzen da.

Berezko taldeen kasuan, ordea, oinarritzat kanean elkartzen diren lagunartek euskalduntzea hartzen baita, irakaskuntzaren estrategia ohiko giroan –gune

ez-formaletan, alegia.–, bideratu beharrak metodologia berezia aplikatzea eskatzen du, testuinguru bakoitzari ondoen dagokion hura, hain zuzen. *Aisialdietan* euskaraz eginez, euskaraz biziz, horrela planteatzen da lagunarteak euskaldunduz joatea. Aisialdiaren inguruan mamitzen da, bada, taldearen funtzionamendua. Noski, taldeak arau jakin batzuk bete behar ditu aurrera egingo badu, besteak beste, hauek: bat, parte hartuko duten lagunek gutxienezko euskara gaitasuna izatea; bi, taldeko bost lagunek ematea gutxienez izena; hiru, taldean daudenean euskara hutsez egitea, erabiliz bakarrik alda baitaitezke hizkuntza-azturak. Euskaraz hitz eginarazteko giro egokia sortu eta aldeko testuinguru horretan murgilaraztea da kontua, horretan datza metodologiaren egitekoa. Taldeak euskalduntzearena aisialdi gisa hartzen ez badu, ez dago zer eginik.

3. KUADRILLATEGIREN IBILBIDEA ETA EMAITZAK

Kuadrillategiren egitasmoaren hamabi urteko ibilbidean hiru epealdi bereizten dira.

3.1. Pasai Antxoko esperientzia: Sortze-aroa (1992-1996)

Esperientzia honek Pello Jauregik bere doktore-tesian egindako kanpo-lana jasotzen du, 1990eko urritik 1992ko ekaina bitartean burutua. Hamabost kidek osatzen zuten lagunartea, tartean bost bikote zeudela. Hizkuntza-gaitasunaren aldetik, bi euskaldun zahar zeuden, bi berri, lau oinarrizko gaitasuna zutenak, beste lau oso hizkuntza-gaitasun txikikoak, eta erdaldun bat (Jauregi, 1998, 99). Beraz, talde nahasia. Gazteak ziren, 22-27 urte bitartekoak.

Bi helburu lortu zituen: bata, lagunartean hizkuntza-azturak aldatzea, baina erdizka bakarrik, zeren, 1990-91 ikasturtean zehar euskararen erabilera nabarmenki hobetu bazen ere, hurrengoan erdararen alderako joera nagusitu baitzen; bestea, hizkuntza-azturaren aldaketa-prozesuaren jarraipena egitea eta, honela, hizkuntza-erabileraren prozesuaren gakoak ezagutzea. Honek argituko du zergatik ez den burutzen osoki ezarritako helburua.

3.2. Lasarte-Oriako esperientzia (1996-2000)

Esperientzia honekin gauzatzen da Kuadrillategi izena daraman egitasmoa, aurreko esperientzian erabilitako ikuspuntuak berrikusi eta hobetuz, diseinu berria dakarrena, baina funtsean lehengoaren antzekoa dena. Lagunartearen kopurua handitu egiten da, 18-20 urte bitarteko 11 lagunarterekin osatuz. Bestalde, euskaldunez eta erdaldunez osatutako lagunarte mistoez gain, lagunarte euskaldunak ere tartean sartzen dira, hauek hizkuntza-azturen aldaketan giltzarri-lana egingo dutelakoan.

Hiru urteko luzapena izandako esperientzia honen emaitzak onak izan ziren, aipagarriena hauex: talde mistoekin arituz euskararen aldeko hizkuntza-aldaketa egin daitekeela, alegia. Zer hobetua bazuen, halere, eta da 18-20 urte bitarteko

gazte horiek, egitasmoan parte har dezaten, behar-beharrezkoa dela Kuadrillategin topatzea kalean topa ez dezaketen aisialdiko eskaintza. Euskararena gustagarria egiten zaien kultur ekintza baten barruan eskaintzea. “Kulturarako tailerrak” bultzatzea eskatzen du horrek.

3.3. Kuadrillategiren hedapena (2001-2003)

Egitasmoan parte hartzeari buruzko lehengo diseinua areago fintzen da azken ziklo honetan, adinean behera eginez 14-16 urte bitarteko koadriletaraino, lagunartea B eta D eredukoekin osatuz (beraz, euskarazko eskolak alboratuz) eta aisialdiko eskaintzaren aukera erraztuz. Bi helburu hauek lortu nahi dira: batetik, euskaraz egiteko ohitura duten lagunartek gehiago finka dezatela hala eginez segi dezaten, hizkuntzari balio kulturala eta soziala emanez, eta bestetik, alderantzizko zentzuan, erdaraz egiteko ohitura duten lagunartek euskaraz egiteko ohitura finka dezatela, hizkuntza-azturetan aldaketa eraginez.

Egitasmo hau 2001-2002 ikasturtean hasi zen eta 2003ko ekainean bukatu, esperientzia honetan zortzi udalerrik parte hartu zutelarik: Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Beasain, Deba, Bergara eta Aretxabaleta, Atarrabia, Burlata eta Uhartek. Udalerri hauetan lortutako emaitzak Diego Egizabalen *Kuadrillategi 2001-2003. Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak* liburutxoan (2004) datoz jasoak. Ondorioak orokorrean hartuta, esan daiteke aurrerapen nabarmenak lortu zirela hizkuntza-gaitasunean eta, orobat, emaitza baikorrak koadrila barruko euskararen erabileran.

Egitasmo honek aurrera segitzen du, pitinka-pitinka lurralde berriak irabaziz. Gipuzkoan abiatu zen, hirugarren epealdian Nafarroaraino iristeko. Egun, Bizkaira eta Arabara ere zabalduta dago, jada Hegoalde osoa besarkatuz. Azken datuen arabera, 2006-2007 ikasturteko lehen hiruhilekoan, 285 gazte ziren egitasmo horretan parte hartzen zutenak, udalerriz udalerriz honela banatuta: Aretxabaletan 16, Arrigorriagan 26, Bermeon 26, Deban 32, Elgoibarren 10, Gasteizen 30, Lasarte-Oria 19, Lezon 38, Oiartzunen 50, Pasai Antxon 15 eta Pasai Donibanen 23. Euskalduntzearen fenomenoaren ezagutzaren aldetik soilki baloratzen dituen batentzat, beharbada, kopuru hori ez da hainbestekoa izango. Ikusia baitago euskalgintzan ezin dela aurrera egin euskara erabiliz ez bada, euskalduntze-prozesuaren alderdi kualitatibo hau aintzakotzat daukanarentzat eredu honek badu bere egiteko horretan etorkizunik.

4. OHARÑO BATZUK ZALANTZEN LAINOPEAN

4.1. Ez dakit Kuadrillategiren egitasmoarekin paradigma berri baten aurrean ote gauden ala ez, horretarako eraikitzen den diskurtsoa zein neurritan den autonomia erabaki beharko bailitzateke, nire asmoa ez dena. Euskalduntzeko era berriak izenarekin bataiatu dut neure jarduna eta oraingo, besterik gabe, horri eusten diot.

Pello Jauregik, egitasmoaren aitak, urrats handia ematen du ikuspegi indibidualista gainditu eta kolektiboa lehenestean, Fishman eta Txepenen ikuspegiari

S. D. Krashen-ena kontrajarriz. Atsegin dut hemen agertzen den ikuspegi kolektiboarekin erabat ados natorrela aitortzea, duela hamalau urte, 1993ko uztaillean, tesi bera sostengatu bainuen leku honetantxe bertan, "Euskal nortasunaren bila: topaketa kritikoa" izeneko lanean (Iztueta, 1998, 17-95).

Kuadrillategiko ikertzaile-taldeak planteatzen duen ikuspegi kolektiboan, aldiz, berezko taldeak dira gizabanakoen artean gizarte-unitate txikienak osatzen dituztenak eta hauek hautatzen dira ikerketaren abiapuntutzat, beren mikroegituraren barruan beren sistema propioa osatzen dutelako. Bestalde, tesian sostengatzen den teoria datu enpirikoen bidez egiaztatzeko, beti ere marko teorikoa "ekintza-ikerkuntza" paradigmaren barruan arituz, berezko taldeen esperientzia aztertzean, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak kontrastatzen ditu, aldioro behar diren zuzenketa eginez.

Honaino ederki. Eredu honek balio du, balio dezake, gizarteko mikroesparru batzuk –lagunarteak kasurako–, euskalduntzeko edo euskaraz bizitzen jartzeko. Baina berezko taldeen eragin-esparrua mugatu samara dela iruditzen zait gizarteko makroegituren funtzionamenduan errotuak dauden hizkuntza-azturak eraldatzeko. Eta hau esatean, diot administrazio-mundua, lan-mundua, osasun-mundua, komunikabideen mundua, hezkuntza-mundua, eta abar luzea.

Ez da nahikoa, Fishmanek egiten duen bezala, lehenik gizarte-erakunde horiek euskaldundu behar direla esatea eta horien artean lehentasunak finkatzea, baina –eta hementxe datze, hain zuzen arazoaren gako–, helburu horretara iristeko abiapuntutzat jarrera indibidualista hartuz. Ezinezkoa da, guztiz ezinezkoa, erdaldunduak dauden gizarte-egiturak euskalduntzea hizkuntza-plangintza gizabanakoaren ikuspegitik begiratuta eginda. Hizkuntzaren arazoa norberaren gain utzita. Eta honen arrazoa da, lagunekin edo jendearekin mintzatzerakoan, jadanik hizkuntza-aztura jakin batzuk hartuta dauzkagun bezala maila indibidualean, era berean, makroegituren mailan gizarte-erakundeek ere beren hizkuntza-azturak dauzkatela eta aztura horien arabera funtzionatzen dutela eta, ondorioz, mekanismo hori ezingo dela hautsi nola eta euskararen ezagutza eta erabilera ez den planteatzen, hain zuzen, gizarte-egituren funtzionamenduan bertan, horien barrutik jokaturik. Honek, jakina, hizkuntzarena estatu-boterearen ikuspegitik planteatzea dakar. Testuan espreski esaten da Kuadrillategiren egitasmoan ez dela esku-hartzearen subjektutzat hartzen egitura makrosoziologikoa, egitura mikrosoziologikoa baizik, eta maila hori garrantzi handikoa den arren, lan hori politikoei dagokiela. Menpeko hizkuntza baten ezagutzari zein erabilerrari buruzko diskurtso koherente batean, euskararena den bezala, nire ustez sartu beharrekoa da boterearen kontzeptua, estatuarena bezala autonomiena, hizkuntza-azturak gizarte-egituretan aldatzen ez badira, berezko talde mugatuaren gisako mikrotaldeetan egindako euskararen aldeko aldaketak ez baitira aski izango berreuskalduntzearen xedea burura eramanez ahal izateko. Jauregi egileak berak (1988, 91) horrelako zerbait aurrikusten du bere liburuko orrialde batean, nazioaz, gobernuaz, goi-mailako instituzioez ari denean, baina ez du lantzen alderdi hori.

Erakunde politikoak aipatzean, noski, ezingo da bazter utzi botereak hizkuntzarekin duen funtsezko zerikusia, zer esanik ez egoera minorizatuan aurkitzen den euskararen kasuan. Egindako bideari ezer kendu gabe –eta bai asko aupa-

tuz-, konplexuagoa den beste urrats teoriko hori ematen eta, bidenabar, beren egitasmoa zabaltzen ahalegintzea gomendatuko nioke Kuadrillategiko ikertzailetalde prestuari.

4.2. Fishman eta Txepetxen teoretan ahulen atzematen dudana da, hizkuntzen normalizazioaz jardutean, aipatu ere ez dituztela egiten oinarritzkoak iruditzen zaizkidan gatazka eta boterearen kontzeptuak. Joshua A. Fishman, iparamerikar judua, izan da, nire ustez, EAEko hizkuntza-politikaren norabidea gehien markatu duenetako bat elebitasun orekatuaren bidetik. Haren hitza aski erabakigarria izan da euskalgintzan orokorrean eta, bereziki, esparru instituzionalean.

Xabier Erizek *Planet* aldizkarian (140, 2000) egindako elkarrizketan aitortzen duen bezala, Euskal Herrian egun indarrean dauden hizkuntzen etorkizunari dagokionez, bera egoera egonkorren gainean eraikitako elebitasun diglosikoaren aldekoa agertzen da. Bi arrazoi ematen ditu bere defentsan: bat, egungo egoera politikoan ezinezkoa dela gaztelania euskal bizitzatik botatzea, eta bi, gatazka ikaragarri horretan sartu baino askoz errentagarriagoa dela Mendebaldeko Europan nagusi den kultur girora –funtsean, berrikuntza teknologikoetara–, moldatzen saiatzea. Diglosi eredu aurreratua –orekatua–, da berak proposatzen duena, zeinetan G (Garaia) eta (A) Apala mota biak presente egongo bailirateke gaztelaniaren zein euskararen kasuan. Horietako hizkuntza bakoitzak zein zeregin betetzen dituen, edo litzuzkeen, norberaren historia partikularrak eta eskualdearen kokaguneak erabakiko dute. Haren ustez, Nafarroan, adibidez, gaztelania seguru asko ezinbestekoa izango da A motako zereginetarako, eta G motako zereginetarako maila administratibo eta politikoan. Berdin maila kulturalen, kanpoko literatura etxeratu ahal izateko. Euskal Herrian beti izanen dira beren lehen hizkuntza gaztelania izango dutenak, Nafarroan bezala Bilbo eta Donostian. Kontuan da elkarrekin ondo ematea, batak bestea ez alboratzea, menpean hartzea, besteen hizkuntza erabat deskalifikatuz. AEKren historian oinarritzkoa izan den berreuskalduntzearen planteamenduak, azken ondorio gisa haren ondoko pasarte honetan datorrenez, ez du zentzurik:

Uste dut euskararentzat eredu negargarria (*terrible* katalanez) izanen litzakeela osoki euskaldundua ez den populazioa erabat euskalduntzearena, horrek arazoak sortu besterik ez bailuke egingo. Niri, euskalduna ez naizen honi, ez zait iruditzen haserretzeko moduko kontua denik gaztelaniadunek Euskal Herrian beraiek nahi bezain baskoak (*bascos*) izatea, ezta komeni zaien bezain baskoak izatea ere, horretara bultzatuak eta zigortuak izan gabe. Jakina, euskaldunek ere ez lukete beren burua justifikatu behar. Bereziki, ez zaitzete autojustifikatu sekula beste zatia osoki baztertuz. Hori ez da autojustifikatzeko modu bat, besteak baztertze modu bat baizik, hain zuzen ere, haiek zuek iraganean baztertu zintuzteten bezala. Autojustifikatuko zarete baldin eta hizkuntza eta kultura biak zeregin onargarri eta ohoregarrietan lantzeak dakarren aberastasuna azpimarratzen baduzue. Jokabide hau, etikoena ezezik, egingarriena ere bada (Fishman; Erize, 2001, 291).

Kontua, beraz, egoera diglosikoaren barruan hizkuntzen arteko mugak zehaztu eta zaintzea da, batak besteari lekua har ez diezaion. Desagertzera kondentuta dauden hainbat hizkuntzaren aldean, euskara erlatiboki egoera aski onean

aurkitzen bada ere, beste hizkuntza txikien antzera, euskarak ere bere kultur mugak oso ondo zaindu behar ditu, mendealtzearen fenomenoak ez baitu mugarik ezagutzen. Baina euskarak nola zainduko ditu bere mugak alde eta mota guztietako erasana gainera badatorkio?

Iruditzen zaidanez, Fishmanen ikuspegi hau da egun nagusitzen dena maila politiko eta administratiboan, teoria tekno-funtzionalistari bete-betean dagokiona. Alde askotatik egiten du erren, nabarmen egin ere.

Hasteko, “baskos” hitza erabiltzean –erdaraz, noski–, hiztegi guztiz nahasgarria darabil, euskaraz dakiena eta mintzatzen dena bakarrik baita euskalduna. Euskaldunez diharduten erdaldunek argi bezate arazo terminologiko hau, ez baita gurea, nahiz eta, azkenaldion, euskara erdarara moldatu nahirik, ez alderantziz, “euskal” erroa zernahi adierazteko erabiltzen den.

Bigarrenik, erdaldunak euskaldunak bezain “baskoak” baldin badira euskara gabe ere, ez da ulertzen zergatik proposatzen duen “gaztelaniadunentzat helburu egingarri gisa euskaraz ikastea bertako etnohumanistak eta euskal bizitzako gizarte-zientziak” (Fishman; Erize, 2001, 290). Erdaldunak ez al dira, bada, euskaldunak bezain “baskoak”? Zergatik eta zertarako ikasi euskara?

Hirugarrenik, erdaldunak euskalduntzeak ez du inpliketzen nahitaez ezein bazterketa-asmorik, gutxiago oraindik euskararen kasuan, bera baita menpeko hizkuntza alboko erderen ondoan, eta euskaldunak bigarren mailako herritarra, etxean bertan arrotz. Euskal Herrian euskalduna ez den erdaldun elebakar edo eleaniztuna da izan diskriminatzaile lehen, nagusi eta bakarra. Erdaldunari euskalduntzea eskatzea, ez da, berez, erdaldunen hizkuntzak deskalifikatzea, edo baztertea, Euskal Herriak berea duen hizkuntzari zor zaiona itzultzea baizik, erdarak –gaztelania zein frantsesa–, izatekotan ere, eranskinak baitira, ezarriak izan zaizkionak, ez, noski, zapalkuntza sistemakorik gabe.

Laugarrenik, harrigarri samarra gertatzen da nola Joshua Fishman ipamerikar juduak gurasoengandik jasotako “jewish” hizkuntzak, familian ezezik, bere bizitza profesionalean nolako garrantzia izan duen jakinda, etxeko tradizioetik sozialismoan hezia izan zela jakinda, areago oraindik, euskaldunen berri jadanik 1936ko gerraketik bazuela jakinda, berriro diot, zail egiten zait ulertzea zergatik ezartzen dituen eredutzat edo albo-hizkuntzekin ongi etortzearen adibidetzat frisia, maoria, irlandera eta katalana, hauen kasuak ez baitira euskararekin berdintzekoak, ezta eredutzat hartzekoak ere. Zertarako irlandearik gabeko Irlanda? Zergatik ez du aipatzen Israelen aplikatuko hizkuntza-politika berreskuratzailea, guztiz alderantzizkoa dena? Bestalde, euskarak gutxi du berdintzekorik katalanarekin, hizkuntza hau egiten den eskualdeetan gutxi baitira elebakar erdaldunak.

Azken batean, Fishmanen eskema honetan, egoera diglosikoan aurkitzen diren hizkuntzen arteko harremanak apolizatu eta ahistorizatu gero, Euskal Herrian egun indarrean dauden hizkuntzak oro naturalizatu egiten dira, guztiak era berean gureak bailiran eta, ondorioz, zaindu beharrekoak. Premisa hau onartuz gero, “egoera egonkorretan” edozein zapalketa-mota justifika daiteke, kultu-

rala eta linguistikoaz gain, berdin-berdin soziala, politikoa, ekonomikoa, ekologikoa, generoarena. Zernahi.

Instituzionalistek hainbeste maite duten ikuspegi murriztaile horren aldean, gurea oso bestelakoa da, boterearen zurrumbiloen mugitzen dena, hain zuzen. Estatuek zapalkuntzan eta legezko beharrezkotasunean ezarri izan dute beren hizkuntza nazionala, ez, orain aldarrikatzen den bezala, herritarren borondatezko atxikimenduan. Duela gutxi Inazio Agirrek (*Gara*, 2007-06-4), bere artikulua izenburuan, “legez agindu gabe enpresak euskalduntzea idealista da”, zioen. Eta Quebeceko planteamendua aipatzen zuen, gogora ekarriz hango enpresetan betebeharrak legez emanak datozela. Legeak ez duela guztia bermatzen? Egia hutsa. Egia borobilagoa da, ordea, legerik gabe edo, zehatzago esanda, lege egokirik gabe, ez dagoela zer eginik. Eguneroko gizarte-bizitzan eginkizun askotara gaude behartuak. Estatu-hizkuntzetara ere behartuak gaude. Zer du eskas hizkuntza minorizatu batek estatu-hizkuntzen antzeko trataera izan ez dezan?

Bosgarrenik, elebitasunaren helburuak gehiago du mitotik errealismotik baino. Egia da munduan milaka hizkuntza egiten direla, gero eta gehiago direla hizkuntza bat baino gehiago dakizkiten edo mintzatzen dituzten hiztunak, baina orokorrean, hiritar gehien-gehienak elebakarrak dira, baita herrialde aurreratuena ere; bestalde, hiztun eleaniztun horiek ere beren eguneroko bizitzan hautatzen duten hizkuntza hura erabiltzen dute, ez bi eta hiru batera. Hizkuntza bat baino jakiteak ez du bide ematen bere eguneroko erabileran eleaniztuna dela pentsatzeko. Normalean, beharrezko duen huraxe erabiltzen du hiritarrek. Gurean elebakartasuna aipatu ordukoxe satanizatzen da hitz hori, baina ez gara ohartzen, edo ez dugu ikusi nahi, Espainian eta Frantzian elebakartasuna dela nagusi. Aldea honetan dago, erabilera elebidunen historia herri menperatuei dagokiena dela, zuzenean estatu-botereari loturik datorrena, eta estatuak berentzat gordetzen dutela elebakartasunaren pribilejioa. Euskararen etorkizuna pedagogia askatzailearen ikuspegitik ikusten ez bada, ametsa baino ez da izango Erdal Herriaren euskalduntzea. Egiazki kinka gaiztoan aurkitzen gara, geure buruak ezin argituz.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, Inazio: “Legez agindu gabe enpresak euskalduntzea idealista”. In: *Gara*, 2007-06-4, 13.
- EGIZABAL OLLOKIEGI, Diego: *Kuadrillategi 2001-2003. Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak*, Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, 2004.
- EGIZABAL OLLOKIEGI, Diego: “Hiznetek antolaturiko graduondokoa ikasleei banatzen zaien txostena”, *Kuadrillategi. Ikerketa eta aholkularitza*, (datarik gabe) 1-23.
- FISHMAN, J. A. *Sociología del lenguaje*, Madrid: Cátedra, 1988.
- FISHMAN, J. A. “What is reversing language shift (RLS): and how can it succeed?”. In: *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 11 zk., 1990, 5-36.
- FISMAM, Joshua A.; ERIZE, Xabier (2001): *Llengua i identitat* liburuan, Editions Bromera, Alzira, 2001, 291. Jatorrizkoa: “Construint fronteres positives”, *Planet*, 140, abril/maig, 2000.

- IZTUETA ARMENDARIZ, Paulo. "Alfabetatze eta euskalduntzearen prozesua hizkuntza normalkuntzaren ildotik: 1940-92". In: ELE, 11-12 zk., 1992, 65-91.
- IZTUETA ARMENDARIZ, Paulo. "Sociología de la alfabetización y euskaldunización (1940-1992)". In: Paulí Dávila (dir.): *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*, EHU, 1995, Bilbo, 79-99.
- IZTUETA ARMENDARIZ, Paulo. "Euskal nortasuna: topaketa kritikoa". In: AZURMENDI, Joxe (zuz.): *Hizkuntza eta talde-nortasuna*, Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 1998, 17-95.
- JAUREGI ETXANIZ, Pello. *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategiak*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 1988.
- JAUREGI ETXANIZ, Pello. *Euskara eta gazteak Lasarte-Oria II*, Hizkuntzazko jokaerak, 2003.
- JAUREGI ETXANIZ, Pello; EGIZABAL, Diego; HUEGUN, Axier eta beste. "Kuadrillategi: koadrilak euskaraz bizitzeko proiektua". In: *Hik Hasi*, 50 zk., 2000, 49-56.
- JAUREGI ETXANIZ, Pello; EGIZABAL, Diego; HUEGUN, Axier eta beste. "Kuadrillategi", *Gazteak eta euskara. Gazteen euskararen erabilera sustatzeko gida* liburuan, Hik Hasi, 2000, Lasarte-Oria, 130-141.
- JAUREGI ETXANIZ, Pello; HUEGUN, Asier. *Sentitu*, Donostia: Utriusque Vasconiae, 2005.
- KRASHEN, S. D. *Principles and practice in Second language acquisition*, London: Prentice-Hall International, 1987.
- OSA, E.; NUÑEZ, J. M. (1989). "Ekintza bidezko ikaskuntza programatzeko sistematizazio eredu". In: ELE, 5 zk., 85-111.
- SANCHEZ CARRION "TXEPETX", J. M. *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría general de las lenguas*. Donostia, 1981.
- TALDE-LANEAN. "Euskalduntzea krisian?". In: *Jakin*, 137 zk., uztaila-abuztua. Donostia, 2003.